

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2023ko ekainak 9 · 1274 zenbakia

## ITURBURUN EGUN HANDIA EUSKARARI TIRAKA

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.  
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34  
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com

# EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA UDA IKASTAROA

**Mailak: B2 eta C1**

**Moduloa:** Egunero 5 ordu

**Data:** Ekainaren 26tik uztailearen 21era

**Ordutegia:** 08:30 - 13:30

**Matrikula aldia:**

Ekainaren 1etik 20ra

**Prezioa:** 132 €

(Eibarren errodaturako  
ikasleentzat erdia)

Informazio gehiago:

**EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA**

Bista Eder, 10

943 700 912 / 688 698 566  

[euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)



HABEren dirulaguntzaz



**Eibarko Musika Eskola**  
Escuela de Música J.B. Guterria



@eibarkomusikaeskola

2023-2024

**Ikasle berrien  
MATRIKULAZIOA ZABALIK  
ekainaren 9tik aurrera**



# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibar Kantuan bueltan da. Felix Elkoroiribek sustatuta eta Iraide Ansorenak antolatuta, bihar gau berezia biziko da Astelena frontoian. Bertan arituko da, besteak beste, Isabel Sarasua, Asun Anguera handiaren alaba. Hirurekin egon gara herriko musikaren ikur den ekitaldiari buruz berbetan.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

J.A. Mogel Ikastola

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### San Andres Eskolako 3 urteko irakasleentzat

Ikasturteari agur esaten hasteko mementoa iritsi da eta baita eskertzekoa ere. San Andres eskolan daukat 3 urteko semea, eta eskerrak eman nahi diet bi ikasturte hauetan semearen heziketan hain garrantzitsuak izan diren irakasleei. Mila esker! Bai, eskerrik asko! Irakasleok gehiagotan entzun beharko zenituzten esker hitzak dira. Nire uste apalean, irakasleek egin duzuen lana zoragarria izan da, eta bereziki bere tutorea goraiatu nahiko nuke. Ez dakit, gu, gurasoak, kontziente garen zein garrantzitsua den Haur Hezkuntzako adin honetako irakasleen lana. Nire izenean honako hau adierazi nahi dut: semeak jaso duen heziketaren parte garrantzitsua izan zarete eta horrek asko pozten nau, zuek bezalako ereduak behar baititu hezkuntzak, bai alor profesionalean, bai alor humanoan, gure umeei jasotzen duten gertutasun eta maitasunagatik.

*Andereño! Bai, ni naiz, Unax: eskolara poz-pozik joaten naiz, badakidalako zuk zainduko nauzula; oso ondo pasatzen dut, eta jolas eta jarduera aberasgarri eta dibertigarri asko egiten ditugu elkarrekin. Hemendik aurrera ere, zu bezalako irakasleak nahi ditut nire ibilbidean. Andereño, oraindik piskatxo bat falta arren oporretarako merezitako hiru lantxo bidaliko dizkizut, hiru "D"ak: deskonektatu, deskantsatu eta, batez ere, disfrutat. Andereño, eskerrik asko guztiagatik, besarkada bat.*

Arantza Mata

## Astean esanak



Emaginok desagertzen ari gara. Hurrengo bost urteetan emaginen %80 desagertu egingo gara: oso datu larria da hori. Ebidentzia zientifikoak erakusten baitu emakumeari haurdunaldian eta erditzean laguntzeko osasun profesional prestatuenak garela. Emagin eskasia egoteko beste arrazoi bat emagina izateko erizaina izan behar izatea da; lehen bi ogibide desberdin ziren, eta beste herrialde batzuetan bi ikasketa prozesu independente dira oraindik ere. Ematen du ez dagoela interesik gauzak aldatzeko eta emakumeek prozesua ahalik eta era naturalenean bizitzeko.

CLARA ROSAS, emagin eta osteopata

Balea boreala 200 urte baino gehiago bizi daiteke, eta 80.000 kilo pisatzen du. Dordoka erraldoi batzuk ere 200 urte bizitzera heldu daitezke, baina, narraziak izanda, haien biologia gizakiarenetik urrutiago dago. Baleak, ordea, gu bezala, ugaztunak dira. Hori kontuan izanik, baleek minbiziaren loterian txartel nahikotxo izan beharko zituzten. Baina bale horien azaleko zelulek DNAn sortzen diren aldaketak edo hausturak erreparatzeko sekulako gaitasuna dute, ez saguek, ez behiek, ezta gizakiok ere lortu ez duguna. Badirudi konpontze mekanismoaren perfektutasunak zerikusia duela uraren tenperatura baxuekin. Ur hotzetan bizitzea izan daiteke, beraz, balearen bizipozaren arrazioa.

AINARA CASTELLANOS, Ikerbasque

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ORATU** → Heldu. "Nahixago eban subiari oratzia, hari eskua emotia baiño". Apustu bati baietza eman. "Itziarkuaren kukurrukuari Elgetakuak oratu ei detsa". Harrapatu, atxilotu. "Lapurra oratzia zan kontua, baiña ezin izan eben".

**ORATU-LEKU BAKUA** → Zintzoa, zuzena, jasekoa. "Iñori asarre egitteko, lehelengo norbera bihar da izan oratu-leku bakua".



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 9</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>ZAPATUA 10</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>DOMEKA 11</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>ASTELEHENA 12</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (S. Agustin, 5)
<b>MARTITZENA 13</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>EGUAZTENA 14</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 15</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (S. Agustin, 5)
<b>BARIXAKUA 16</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>GAUEZ BETI, 2023an,</b> <b>Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Ana Maria Larrañaga Maiora.** 75 urte. 2023-05-31.
- **Felix Sologaitua Ubera.** 96 urte. 2023-06-02.
- **Santiago Lillo Garcia.** 63 urte. 2023-06-03.
- **Natividad Garate Arrasate.** 78 urte. 2023-06-05.
- **Elvira Rodrigo Anton.** 94 urte. 2023-06-05.
- **Jose Angel Ulazia Beristain.** 66 urte. 2023-06-06.



## Debabarreneko industria-enpresen topaketak 80 ordezkari bildu zituen

Barixakuan egin zuten Debabarreneko industria-enpresek osatzen duten Basque Precision Technology District (BPTD) enpresa-taldearen Batzar Orokorra, EHUko Eibarko ataleko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren eta Uni Eibar-Ermuako instalakuntzetan.

Ekitaldian eskualdeko punta-puntako enpresetako 80 ordezkari hartu zuten parte. Orain dela

gutxi BPTDko presidente kargua hartu duen Iñigo Perezek nabarmendu zuenez, gure eskualdeak “beharrezko xumeak ditu elkarte honen bidez ekintza garrantzitsuak egin ahal izateko. Debabarrenak enpresa-sare sendoa du, puntako ikastetxeak, erreferentziako zentro teknologikoak... eta ahalik eta gehien aprobetxatu behar ditugu”.

## Corpus Eguna berreskuratuko dute Karmelitetan domeka eguerdian

Orain dela hainbat urtetako “40 bat bueltan izango dira dagoeneko” jarraitzen zuten ohiturari heldu diote berriro eta, Pedro Laskurain Eibarko parrokoak azaldu digunez, “Corpuseko prozesioa berreskuratzera animatu gara aurten, katekista, jaunartzea egin duten gaztetxo eta azken horien gurasoekin batera”. Domeka eguerdian hasiko da ekitaldia, 12:00etan Karmen parrokiaren ospatuko den mezarekin. Ho-

rren amaieran prozesioan joango dira Urkizuraino, bertan kokatuta egongo den aldarean “geldiunea egin eta herri guztiari zuzendutako bedeinkapenarekin” jarraitzeko eta, behin hori amaituta, berriro bueltatuko dira elizaraino. Prestakizun lanak, dena dela, goiz-goizetik hasiko dira, “07:00etan gero prozesioan eramango den lorez osatutako 3x3 metroko alfombra egiten hasiko dira parrokiaren parea-eta”.

## Astindu eta Behatokiaren arteko lankidetzaren sustatzeko hitzarmena

Eibartarrek hizkuntza-eskubideen inguruan izan ditzaketzen zalantzak, kezak eta galderak jasotzeko eta argitzeko, Astindu izeneko kanala sortu zuen Eibarren Akebaik 2021ean. Arduradunen berbetan, “herritarrek jasotako hizkuntza-eskubideen urraketak adierazteko eta partekatze kon-taktu bat da, eta ahalik eta modu egokienean bideratzeko gomendioak eman eta bitartekaritza eskaintzen dira”. Harremanetan jartzeko bide ezberdinak daude: telefonoz deitu (943 708 426), posta elektronikora mezua bidali (eibarrenakebai@gmail.com) edo, bestela, akebai.eus webguneko formularioa bete daiteke. Eibar euskaldunagoa lortzeko helburuan pauso bat aurrera emanez, Eibarko Udalak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak elkarlana sustatzeko hitzarmena sinatu dute: “Euskaldunon hizkuntza-eskubideen babesean eraginkorrak izatea lortu nahi dugu. Zentzu horretan, Behatokiari helaraziko dizkiogu Astindu zerbitzuan bildutakoak, Behatokiaren urteko txostenean ere jaso ahal izateko eta, alderantziz, Eibarren inguruan jasotakoak jakinaraziko dizkio Behatokiak Astinduri”.





## Odol-emaileen Nazioarteko Eguna ospatuko da eguaztenean

Ekainaren 14an ospatzen da Odol-emaileen Nazioarteko Eguna eta, hori aprobetxatuta, Eibarreko odol-emaileen elkarteak eskerrak eman nahi dizkiete odola ematera joaten diren herritar guztiei. Bide batez, odola ematera joateko deia egin nahi dute, “horren premia beti izaten da-eta, are gehiago uda sasoiaren”. Eibarren hilean birritan egoten da odola emateko aukera, eguaztenean, 16:50etik 20:50era, Untzagako jubilatutxean. Hurrengo saioa ekainaren 22an izango da.



## Bihar goizean Untzagan arituko dira matazak ehuntzen, 10:00etatik 13:00era

Kalean Ehuntzeko Munduko Eguna dela eta, bihar 10:00etatik 13:00era Untzagan matazak ehuntzen arituko dira. Aldarrikapena eta jaiak, biak elkartuko dituen ekitaldirako goiburua “Kaleak gureak dira” izango da eta bertan matazak ehunduko dituzte, “indarkeria sexistari punta eta kitto ematen lagunduko duten sareak ehuntzeko ekintza sinboliko gisa”. Eibarren bezala, beste herri

askotan egingo da ekimena, hainbat helburu lortzeko: “Hala nola, ehuntzearen artea aldarrikapen feministarako tresna bihurtzea, beti emakumeei eta eremu pribatuari lotuta egoteagatik baliorik eman ez zaien diziplinak eremu publikora ateratzea, harreman afektiboei balioa ematea, eta gure aurretik izan diren emakumeek itzalean egindako lanari merezi duen balioa ematea”.

“... bakoitzak urraturik berea,  
denon artean geurea,  
etengabe gabiltza zabalten  
GIZATASUNARI BIDEA”



**Jose Anjel**, badakizu bide horretan saiatuko garela etxekook, gida eta lagun gaitzazu

## Jose Angel Ulazia Beristain

Mutrikutik, Eibarrera,  
Bilbotik, Tuterara,  
Iruñeatik, Baionara...  
Edarra izan da zurekin  
batera naziogintza,  
justizia soziala eta  
sindikalismoaren  
baloreak zabaltea.



ELA-ko lagunak





## Aldatzen elkarrekin ikasten ibilitako lagunek urteroko bazkaria egin dute

Aldatzen elkarrekin ikasi zutela eta, ordutik sortutako ohiturari txintxo-txintxo jarraitu ondoren, aurreko barixakuan euren arteko 49. bazkaria ospatu zuen argazkiko 14 laguneko taldeak. Aurreko barixakuan, hilaren 2an, Deban

pasatu zuten eguna eta baita “asko luzatu zen bazkaria” egin ere, bertako Calbeton jatetxean. Datorren urtean 50. ospakizunera iritsiko direnez, badabilta egun osoa hartuko dien “zeozer berezia” prestatzen. Bejondeiela!



## 1956. urtean jaiotakoen bazkaria

Aurreko asteburuan, zapatuan egin zuten bazkaria aurten 67 urte bete edo beteko dituztenek. Izan ere, elkartzan diren bakoitzean hain ondo pasatzen dute, hitzordua urtero errepikatzen dutela.



## Ubitxa kaleko zati bat itxi egin dute, Urkin horma bat botatzeko lanengatik

Astlehenean hasi zituzten Urki kaleko 9. eta 11. zenbakien ostean dagoen horma botatzeko lanak, “arrakala batzuk ditu-eta”. Lanek hilabeteko iraupena izango dute eta, amaitu arte, Juan Gisasola kaleko 3. eta 5. zenbakien atzealdea eta Ubitxa kaleko 1., 3. eta 5. zenbakiak itxita egongo dira, “igarotzen diren pertsonen eta ibilgailuen segurtasuna bermatzeko. Dena dela, oinezkoak Ubitxa atzealdearen eta Urkiren arteko igogailura joan ahal izango dira”.



## Datorren asteko merkadilloa ez da Txaltxa Zelaian izango

Datorren astean hasi eta, Sanjuanetako jai eta ospakizunak amaitu arte, eguaztenetan Txaltxa Zelaian izaten den asteroko azoka tokiz aldatuko dute, bertan barrakak eta txosnak egongo direlako. Beste batzuetan bezala, Toribio Etxebarria-Untzaga inguruan ipiniko dituzte postuak.





## Karibeko giroarekin agurtu dute kurtsoa

La Salle ikastetxeek “makro festa” egin zuten zapatuan, ikasturte amaiera ospatzeko. Jaialdirako gai gisa Karibe Mix Hondartza aukeratu zuten eta, egin zuen eguraldia ikusita, argi dago bete-betean asmatu zutela. Ikasleekin batera, familia asko animatu ziren parte hartzera eta primerako eguna pasatu zuten.

## Bihar zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak

Bihar zabalduko dute Ipuruako kanpoko igerilekua eta, horrekin batera, udako denboraldiari ekingo zaio. Datozen hiru hilabeteetan egunero zabalduko dute, goizeko 10:30etik arratsaldeko 20:00ak arte.



## Eibarren deskontuekin erosteko bonuen kanpaina oraindik martxan dago

Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatutako erosketa-bonuen kanpaina oraindik martxan dagoela gogorarazi nahi dute arduradunek, “ioraindik ez ditugu-eta bono guztiak saldu”. Interesa duenak erosieibarren.eus web orrian sartu eta online erosteko aukera dauka eta, bestela, hauxe da EMGI-k gaitutako bulego ordutegia: asteleheneetik egunera, 09:00etik 11:30era eta 15:00etatik 17:30era; eta, barixakuetan, 08:00etatik 11:30era. Bulegoa Ego Gain kaleko 18. zenbakian dago eta ekainaren 16ra arte egongo da bertara joateko aukera. Erosketa-bonuen kanpainari buruzko informazio guztia ere bertan azalduko dizuzte.



### Alfonso Rodriguez Fernandez

**6. URTEURRENA**  
2017/06/10

“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”

- ZURE LAGUNAK -



### Iñaki Galparsoro Garcia

**10. URTEURRENA**  
2013/06/05

**10 URTE**  
**IÑAKI GABE**

“Gure bihotzetan jarraitzen duzu”

- ZURE FAMILIA -





ARRATE GARITAONANDIA

## Psikoterapia eta osasuna

Garai batetik hona, Osasun Mentaleko kontsulta-eskaerek gora egin dute, bai sektore publikoan, bai pribatuan. Dagoen eskari handia kudeatzea zaila izaten ari da arlo pribatuan ere. Itxaron-zerrendak nabarmen ari dira handitzen, eta baita jasotzen diren kasuen larritasuna ere.

Bestalde, psikoterapeutok egiten dugun analisiaren arabera, psikoterapia osasunaren barruan beharrezko baliabide gisa txertatzeko beharrari buruzko kontzientzia handiagoa dago gizartean.

Gizarteek intimitate errealeko espazioak murrizteko joera daukate eta, ondorioz, bakartze-prozesuak bizkortzen ari dira.

Psikologoarengana joatea tabua eta lotsagarria izan da askorentzat. Baina hori desagertzen ari da, eta psikologoarengana jotzea gero eta gehiago ikusten da beharrezko baliabide eta, batzuetan, pribilegio gisa.

Mina lausotzen duten "Denontzako errezetak", "Aholku azkarrek" eta "Egia absolutuak" bezalako pilula magikoez haratago, alderdi sakonak lantzeko kontzientzia handiagoa duen eskari bati bidea ematen ari zaio.

Kontua da nork bere burua ezagutzeko eta entzuteko gune bat eskaintzea. Indarguneak sendotu eta, traumarik balego, trauma horiek lantzea. Azken batean, autonomia erraztea eta beste harreman batzuetan intimitateaz gozatzeko poza areagotzea.

Eboluzio-etapak garenaren mapa bat dira, eta mapa horrek gidatzen gaitu egunorokoan. Batzuetan mapa hori nahasi egiten da, baita desguleratu ere eta pertsona desosegua sentitzen hasten da, ondoren beste sintoma batzuei bide emateko. Horregatik, historia pertsonalean sakontzeak mapa ulertzen, ondrazten eta nire bizitzako une honetan nor izan nahi dudana berriz erabakitzen laguntzen du.

**“Psikologoarengana jotzea gero eta gehiago ikusten da beharrezko baliabide eta, batzuetan, pribilegio gisa”**



Trinkete tabernako irudia, 1962ko abenduaren 21ean, Gabonetako zozketa egiten ari zirenean. PLAZAOLA

Eibarrera bizitzera joan zenean, tabernetan jende guztiak abestu egiten zuten.

## Eibarko taberna guztietan abestu egiten zen

### Alfredo Elortza Olabegoia (1945)



Alfredo Elortza Olabegoia 1945ean jaio zen Zestoan. Ama berriztarra eta aita zestoarra zituen. Aita goiz galdu zuen eta amak zazpi seme-alaba atera zituen aurrera Zestoan zuten denda bati esker. Hamabi urterekin, Alfredo Donostiara joan zen barnetegi batera ikastera eta handik Iruñera, Farmazia ikastera. Ikasketak amaituta, botika bat zabaldu zuen Eibarren. Zinegotzia izan zen 1979ko Udalean, San Andres Azokaren aitzindari eta Arrate Kultur Elkarteko presidente 10 urtez, Eibarko 80-90. hamarkadako drogen auzia gertutik ezagutu izan zuen.

### Alfredo Elortzari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Ze irudi, Eibarren? Ay eneee! Bueno, oso berezia. Benetan oso berezia. Eta bereziena zen tabernetan jendeak abestu egiten zuela, eta, gaiñera, rantxerak! Esaten nuen nik: “Nora etorri naiz?”. Klaro, ni ailegatu nintzan eta, tabernetara, gu bizi giñan beti tabernetan, batera eta bestera... Eta, Eibarren, ay la leche! Es que ez naiz ahaztuko behin ere. Edozein tabernatan benga, bi, hiru, lau... ta, benga! Ta rantxeriak ta... Esaten nuen nik: “Hau ze herri da, kuriozosa ta...!”. Porque nik ez neban ezagutzen ere, eh, Eibar. Eta imagen hori euki neban hola, hola, sartuta. Eta sartuta daukat hamen, eibartar rantxerak! Eta oindiokan be ibiltzen dira, eh, ez tabernetan, baiño...

# “Belaunaldien arteko Eibar Kantuan antolatu dugu eta inoizko parte-hartzaileena”

IRAIDE ANSORENA, FELIX ELKOROIRIBE ETA ISABEL SARASUA • Eibar Kantuan



Eibar Kantuan bueltan da. 2014an egin zen herriko abeslari eta taldeen azken jaialdi handia eta, orain, indartsu itzuli da. Saioa Astelena frontoian egingo da bihar, 22:00etatik aurrera, eta adin guztietako 150 partaide inguru bilduko ditu. Sarrerak 5 eurotan erosi daitezke eta lortutakoa Elikagaien Bankuari emango zaio.

**F**elix Elkoroiriberen proposamena hartu eta ikuskizuna antolatzen eman ditu azken hilabeteak Iraide Ansorena Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako zuzendariak. Bien arteko elkarlanaren fruitua da biharko Eibar Kantuan, Udalaren laguntzarekin eta herriko musika talde eta bakarlariren parte hartzearekin. Bertan arituko da, adibidez, Isabel Sarasua, Asun Anguera abeslari handiaren alaba.

**10 urte eta gero, Eibar Kantuan berreskuratu du zue. Zergatik orain?**

FELIX: Pandemian zehar ikusten nuen inguruan jendea hiltzen ari zela, adibidez, Enrique Garate edo Asun Anguera. Herriari asko eman dioten lagunak dira eta omenaldi bat merezi zutelako pentsatu nuen. Horretarako, Eibar Kantuan berriz egitea aproposa zela iruditu zitzaidan eta Iraideri eman nion asmoen berri. Berak belaunaldi arteko ekitaldia egitea proposatu zuen. Gero, alkateari egin genion proposamena eta Udalaren onespena jaso genuen.

IRAIDE: Musika Eskolaren zuzendaritza hartu nuen hainbat gauza berritzeko asmoa nuen, proiektu berriak martxan jarri, eta abar. Besteak beste, Musika

Eskolako zerbitzuak pertsona nagusiei eskaini nahi nizkien eta Untzagako jubilatu etxekoekin harremanetan jarri nintzen. Felix ezagutu nuen eta belaunaldi arteko kontzertua egiteko proposamena egin zidan. Hain justu ere, buruan horrelako zerbitu egiteko asmoa nuen, esker onez hartu nuen proposamena. “Eibar Kantuan moduko bat?”, galdetu nion, eta orain aipatu duena esan zidan, ekimena berreskuratu nahi zuela. Orduan, Musika Eskolatik antolatzeke konpromisoa hartu nuen.

**Nolakoa izan da prestaketa-lana? Nola hartu dute proposamena belaunaldi berriek?**

IRAIDE: Prozesu luzea izan da, talde asko dagoelako herrian. Zerotik hasi gara, ez baikenekien nor zegoen abesteko prest edo nor zegoen aktibo. Koruak bai, baina beste taldeen inguruan ez genekien askorik. 10 urte pasa dira azken Eibar Kantuanetik eta ni orain ez dela asko etorri naiz hona. Ez nituen talde asko ezagutzen eta Felixen laguntza berebizikoa izan da. ‘Trio Medianoche’ taldeko Jesus Bastidari kontatu zion eta, bere laguntzarekin, orain dela 10-15 urte Eibar Kantuanen jo zuten solistei deitzen hasi ziren. Bestetik, ni koruez arduratu nintzen. Horrela hasi ginen eta pixkanaka puzzlea osatzen joan ginen.



Biharko saioa heltzeko irrikitan dago hirukotea. EKHIBELAR

### **Aktibo zeuden aipatutako solista horietako asko?**

FELIX: Bihar arituko direnak baino gehiago daude aktibo, baina Manolo Salado, adibidez, Malagan bizi da eta ezin izango da etorri.

ISABEL: Benetan aktibo dagoen talde bakarra 'Trio Medianoche' da, baina besteek musika jotzen jarraitzen dute 'petit comite'-n.

FELIX: Taldeei gonbidapena egiteko, herriko instituzio batekin harremanetan jarri nintzen, Vicente Ramirezekin. Kantuaz gehien dakiena da Eibarren. Benjamin Larizekin eta Bastidarekin 'Los Camperos' berriz ere martxan jarriko zuela esan zidan, baita 'Voces y Cuerdas' ere Marivi Murilloarekin, eta 'Duo Plaentxi'-ko Jose Luis Badiolarekin eta 'Trio Medianoche' taldekoekin harremanetan jarriko zela. Horiek laurak bihar arituko dira.

ISABEL: Beste guztiak hilda daude edo kantatzeari laga diote. Besteak beste, ama, Quique Garate, Manolo Cobos, Aitor Errasti, Los Pibes, Pitina, Julio Lapeyra, Los Tropicales, Trio Lazpita, Armando Benito eta Mikel Urkola.

FELIX: Horietako batzuei deitu genien, baina adi-

## **“Eibar Kantuan herriko identitatearen barrenean dago, baina, urte gehiago pasatuz gero antolatu gabe, ahaztu egin daiteke”**

nean aurrera egin dute eta ez daude parte hartzeko moduan.

**Orduan, esan bezala, aipatutako artista horiek omentzeko balio dezake biharko jaialdiak.**

IRAIDE: Hori da ideia: Eibar Kantuan berpiztea eta, era berean, artista hauek omentzea. Izan ere, orain Eibar Kantuan egin dezakegu lehen egin zelako. Horregatik, omenaldia egingo diegu, baina orain ditugun belaunaldiak ahaztu gabe. Egin zutenak ez daude, baina belaunaldi berriak ditugu eta musikari asko dago

## BIDEOA



herrian. Eibarko Koro Txikia dugu, Koro Gaztea ere, eta gazte gehiago dago Eibar Kantuanen espirtu horren barruan. Ustekabe txarangak, adibidez, 'Eibarko kantak' diskoa atera zuen Eibar Kantuanen inspiratuta, Asun Angueraren figura horretan. Bertako bi abesti entzun ahal izango dira bihar. Horrela, belaunaldien arteko Eibar Kantuan antolatutako dugu eta inoizko parte-hartzaileena. Eibar Kantuan oso ekingintza garrantzitsua izan da herriko identitate kulturalaren barruan eta, 10 urte pasa direnez, ahanzturan ez geratzeko, berpiztu ahal zela ikusi genuen. Herriko identitatearen barrenean dago, baina, urte gehiago pasatuz gero antolatu gabe, ahaztu egin daiteke.

ISABEL: Ba lagun batek esan zidan joan den barixakuan demaseko ilarak zeudela sarrerak erosteko. Jendea gogotsu dago.

FELIX: Oso gauza eibartarra da eta!

**Zergatik gertatzen da fenomeno hau Eibarren? Latinoamerikako musika zergatik errotu da hainbeste herrian?**

ISABEL: Aita gaztea zenean, kuadrilla guztiak kantuan ibiltzen ziren txikiteoan eta, gero, Latinoamerikako abestienganako gustua hartzen hasi ziren.

FELIX: Atzerrira joaten zen jendeak musika berriak ekartzen zituen (habanerak, adibidez) eta batzuk errotu egin ziren.

IRAIDE: Eibar beti izan da herri internazionala, ezta? Uste dut hori dela herriko arima musikala. Beste herri euskaldunagoetan ez da hori gertatzen. Ohikoena da jaialdiak euskal musikarekin soilik egitea. Bitxia da Eibarko kasua. Hemen bakarrik gertatzen da hori eta uste dut herriaren sorrerarekin eta bilakaerarekin zerikusia duela.

FELIX: Behin, Mendaron bizi den Ernesto Ezpeleta 'Bihurri'-ren bitartez, hango Kultura zinegotzia nirekin harremanetan jarri zen kontzertu bat prestatzeko asmoz, eta 'Voces y cuerdas' eramateko esan nion. Kontzertua antolatu zuten eta oso gustora ikusi nuen, baina zinegotziari esan nion hobe zela 'Tapia eta Leturia' eramatea, ia jenderik ez zelako joan, eibartarrak bakarrik. Ostera, kontzertua Eibarren eginez gero, tokia bete egingo litzateke.



**Isabel, zuk etxean bizi izan duzu musika giro hori. Nolakoa izan da?**

ISABEL: Batetik, aita tenorea zen Eibarko parrokiako koroan. Hori bai, amaren atzean zegoen beti (barreak). Bestetik, ama aitxitxarekin hasi zen kantuan. Txikitan Urkizun bizi zen eta ez zuten irratirik. Orduan, burua etxearen kanpoan zegoen goitegian (freskeran) sartzen zuen, bertan goiko bizilagunaren irratia entzuten zelako. Etxean, ama beti zegoen abesten eta oso bikote ona osatzen zuen aitarekin. Bizi guztian entzun ditut abesten, baina ama hil arte ez nintzen abesten hasi. Lotsa edo beldurra ematen zidan, amaren ahotsa demasekoa zelako.

IRAIDE: Baina zu bere jaialdietara joaten zinen, ala?

ISABEL: Bai, guztietara. Emozioz bizi nituen. Ama hirurogei urte baino gehiagorekin hasi zen publiko aurrean abesten, ordura arte soziedadean, lagun artean edo etxean abesten zuen bakarrik. Uste dut bere lehen Eibar Kantuan 2002koa izan zela. Gero, 'Voces y cuerdas'-en hasi zen. Vicente Ramirezekin txikitatik zuen harremana eta taldea osatzea proposatu zion: "Jendea ezin da gelditu ahots hori entzun gabe", esan zion. Hamar urte inguru bakarrik egon zen taldean, baina emozio handiz bizi izan zituen. Askok ezagutzen zuten ama, baina orduan jaso zuen errekonozimendu soziala.



ten ondorioz ahaztutako afektua eta kontaktu fisiko berreskuratzearen aldekoa ere bada, hala nola musuak eta besarkadak, norekin eta nahi dugun bezala”. Hiru artista izango dira taularen gainean eta Xabier Paya bertsolariaren lankidetzaren izan dute musika-konposizioan.

### Sanjuanetan aitortza jasoko dute

Ekainaren 23an, San Juan bezpera, Sanjuan Sua antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, urteroko ohiturari jarraituz hainbat omen-duk izango dute sua ixotzeko ar- dura, eta horien artean izango dira berbalagunak. Egiten duten lana eta ahalegina eskertu eta aitortu nahi die ...eta kitto!-k; izan ere, astero elkartzen baitira ordubetz euska- ra praktikatzeko taldeetan, eta urte osoan egiten duten ahalegina saritu nahi die. Omenduen zerrenda luzea da aurten eta, berbalagunekin ba- tera, sua ixotzen izango dira Nerea Lodosa Neledantzako burua, Eibar KEko emakumezkoen taldea, Ho- dei Ezpeleta aizkolaria, Lorea Urkia Miss Grand Euskadi, Jose Perez “El Tigre” boxeolaria eta Aitor Montero motorzalea.

## Datorren astean agurtuko du ikasturtea Berbetan programak

Lan mardula egin dute ikasturte osoan zehar Eibarko berbalagunek eta orain iritsi da atsedeen hartzeko momentua. Datorren astean ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako bi ekimenekin agurtuko dute ikasturtea. Batetik, Berbetan programan parte hartzen duten berbalagunak Elgoibar aldera joango dira egunean, Lizagasar sagartokira, hain zuzen. Urtero antolatu ohi du ...eta kitto!-k ikasturte amaierako afarimerienda eta aurten han egingo dute. Bestetik, eta familiei begira, jaialdia antolatuko du ...eta kitto!-k ekainaren 14an, eguaztena. Eidabe konpainiak “Gora bihotzak!” izeneko ikuskizuna ekarriko du Errebal plazara arratsaldeko 17:30ean, eta sarrera doakoa izango da. 2 eta 12 urte bitarteko haurrei eta haien familiei zuzendutako ikuskizuna izango da, eta denetarik izango du:

“Musika, dantza, sorpresak, barreak... haurrek zein helduek primeran pasatzeko modukoa!”, diote antolatzaileek. Jai-kutsua duen ikuskizun hori abesten eta dantzan ondo pasatzeari buruzkoa da, eta “pandemiak ezarritako murrizke-



HAIZEA IBARRA, JONE ALDAI ETA GANIX GUENAGA • Eibar BHI

# “Ideia errealitate bihurtzea gogorra izan da”

Eibar BHI-ko Batxilergoko 1. mailako ikasleak oporretan daude, baina datorren ikasturtera begira jarri dira dagoeneko. Izan ere, ikasbidaia egingo dute hurrengo urtean eta bidaia finantzatzeko zenbait ekintza prestatu dituzte. Horien artean, San Juan jaien egitarauaren barruan, hilaren 16ko arratsaldean (16:30etik 19:45era), umeentzako zerbait berezia prestatu dute.

**H**aizea Ibarra, Jone Aldai, Ganix Guenaga eta Nora Entrena ibili dira ekintza berezi hori antolatzen eta horren helburua eta berau prestatzeko lanak nolakoak izan diren kontatu dizkigute (Nora ezin izan zen gurekin egon, gaixorik baitzegoen).

## Zer prestatu duzue hurrengo barixakurako?

Sanjuanetako egitaraua lehenago hasiteko, umeentzat propio zerbait berezia eskaintzeko, umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko eta eskola ezberdinetako umeak elkar ezagutzeko ekintza ezberdinak egingo ditugu.

## Zein ekintza?

Untzaga bi zatitan banatuko dugu. Alde batean, kirol aktiboak egingo ditugu; hala nola, ‘banpiro’, ‘arto bilketa’ eta ‘ur jokoak’. Eta beste aldean, sormena landuko dugu batez ere. Adibidez, aurpegiak margotzeko eta atzazkalak margotzeko aukera egongo da. Horrez gain, musika jarriko dugu eta zain dauden umeentzat mural bat jarriko dugu lurtean margotzeko.

## Zein adinetako umeentzat egongo da zuzenduta?

Herriko eskoletara joateko asmoa dugu ekintzaren berri ematera. Beraz, pentsatzen dugu Lehen Hezkuntzako umeentzat egongo dela zuzenduta batez ere, baina Haur Hezkuntzako nagusienek ere

parte hartu ahal izango dute seguruenik. Azken batez, ekintzan parte hartu nahi duten umeak etorri ahal izango dira.

## Nola hartu ahal izango da parte? Izena eman behar da? Bertan agertzearekin nahikoa izango da?

Untzagako gunea hesiekin itxiko dugu eta sarrera moduko bat jarriko dugu. Orduan, bertan sartzeko bi euro ordaindu beharko da eta ekintza guztietan parte hartzeko aukera izango dute.

## Izan ere, honek guztiak beste helburu bat ere badauka zuentzat, ezta?

Bai, gure helburua ikasbidaiarako dirua lortzea da. Horregatik, eskoletara joango gara umei gure asmoen berri ematera, baina lehenik gurasoen elkarrekin jarriko gara harremanetan, umeekin egon behar garen egun horretan bertan sarre-rak erosteko aukera izango dutenez, dirua eraman dezaten. Bestela, barixakuan bertan sarrera erosteko aukera egongo da. Barixaku gauean Su Ta Garren kontzertua egongo denez, pentsatzen dugu giro ona egongo dela Untzagan.

## Nola moldatu zarete hori guztia prestatzeko?

Idea pentsatzea ondo dago, baina hori errealitate bihurtzea nahiko gogorra izan da. Egunean bertan ez dugu guk bakarrik dena egingo, 35 lagun inguru izango ditugu laguntzen (umeak antolatzen, ekintzak egiten...), bestela lauok ezingo genukeen dena egin. Izan ere,







Lanzarotea egingo duten ikasbidaiarako dirua biltzen ari dira ikasleak. EKHI BELAR

**“Herri izaera eman nahi izan diogu ekintza honi eta euskararen erabilera bultzatzeko balio dezala”**

jende asko etorriko dela espero dugu. Hasieran gauza erraza izango zela pentsatzen genuen, baina aurrera egin ahala oztopoekin egin dugu topo eta ordu asko sartu behar izan ditugu aurrera egiteko. Hori bai, oso pozik geratu gara lortu dugunarekin. Ea nola irteten den.

**Udalarekin egin behar izan duzue berba baimenak, materialak eta abar lortzeko?**

Bai, baimena eman behar izan digute, eta megafonia eta hesiak lagako dizkigute, baina ekintzetan erabiliko den materiala guk jarriko dugu.

**Antzeko ekintzarik egin duzue ikasbidaiari begira?**

Normalean, dirua biltzeko, gauzak saltzea da jendeari okurrizten zaiona. Horrela, merkatu plazan egin zen bigarren eskuko azokan egon ginen eta nahiko diru bildu genuen. Sanjuanetan eta Sanandresetan ere gauzak saltzeko asmoa dugu, baita rifak ere, baina gu-

rea bezalako ekintzarik egitea inori ez zaio okurriritu. Herri izaera eman nahi izan diogu ekintza honi eta euskara bultzatzeko balio dezala. Izan ere, gero eta arazo gehiago ikusten ditugu euskararekin eta umeekin. Beraz, polita izan daiteke.

**Esperientzia honetatik zer ikasi duzue?**

Alde batetik, ez dela hain erraza (barreak). Baina bestetik, Udalari eskakizuna egiten ikasi dugu, adibidez. Eta orain, eskoletara joango garenez, umeekin lehen harreman zuzena edukiko dugu. Esan bezala, ez da erraza, baina gauzak egiteko gogoarekin dagoen jendearekin bilduz gero, gauzak aurrera eramaten dira. Begira, maiatzaren erdialdean bururatu zitzaigun hau egitea, azterketak hastear zeudela, eta hiru aste besterik ez genuen gauzak martxan jartzeko, baina jendea prest egon da eta lortu dugu.



Kirala Euskaraz Bizi  
J.A. Mogel Ikastola  
2023/06/03





# Boxeo jaialdiak zilarrezko ezteiak biziko ditu gaur

Azken urteotan ere Sanjuanak aurretik egin bada, oraingoan bi aste lehenago izango da urteroko ekitaldia. Gainera, oraingoan Jose Perez "El Tigre"-k omenaldia jasoko du jaietako egitarauaren barruan. Boxeolari izandako bera baita, Ttatt gimnasioko Ramon Quinarekin elkarlanean, urtero ekitaldia prestatzen jarduten duena. Martitzenean biak izan ziren, alkatearekin eta Kiroletako zinegotziarekin, udaletxean egin zen aurkezpenean, azken horiek zioten bezala "Eibar 2023ko Kiroloaren Europar Hiria izendatu izanarekin bat datorren ekitaldiaren" nondik norakoak jakinarazteko. Gaurko jaialdia gaueko 22:30ean hasiko da Astelena frontoian.

**G**uztira zortzi borrokaldi izango ditu jaialdiak, boxeoko amateur mailakoak batzuk eta sanda modalitateko profesioaletakoak besteak. Osatutako karteldegia elite mailako bost boxeoko borrokaldi iragartzen ditu, gehienak Gimnasio Gasteiz eta Bilboboxing taldeetako kirolarien artekoak. Horrela, 54 kilo barrukoan Dorleta Zubeldiak eta Oibar Artetxek neurtuko dituzte indarrak, 75 kilokoan Kevin Saavedrak eta Alison Gomezek, 63 kilokoan Bussef-ek eta Jose Perezek eta 89 kilo barrukoan Ibai Aratzamendik eta Cristian Bolak.

Arabako eta Bizkaiko ordezkarrien artekoetatik aparte, 66 kilorainoko borrokaldian gure herriko Ttatt gimnasioko ordezkaria izango dugu: Aitor "Guda"-k Burgos Boxing ordezkatuko duen Adrian De Lis Santos izango du aurrez aurre. Ramon Quina "Guda"-ren prestatzaileak dioskunez, "Beasaingoa bada ere, gurekin dabil entrenatzen eta debuta egingo du boxeotan. Arte



Martitzenean aurkeztu zuten udaletxean gaur gaueko jaialdia.

martzialetatik dator eta K1 profesionaletan Euskadiko txapelduna izan da; boxeoa hasteko beteranoa bada ere, bidea egin dezake". Sanda modalitateko gainerako hiru borrokaldietan beste emakume batzuk ere hartuko dute parte, Sandra Canabal eta Marta Coral tartean. Eta hor izango da baita Quinarekin entrenatzen duen Amer soraluzetarra ere. Kontuan izan behar da, dena dela, hurrengo asteburuan Wu-Shu modalitateko Espainiako txapelketak jokatuko direla Madrilen eta "lehiaketa horrek garrantzi handiagoa duela gure kirolarientzat".

### Beteranoak eta gazte jendea

Astelenako Sanjuanetako jaialdia beteranoena da Gipuzkoan, Ordiziakoaren atzetik. "Gureak 25 urte egiten baditu orain, Ordiziakoa 50.aren bueltan ibiliko da", dio Jose Perez "Amañako Tigreak". Hala ere, biek ala biek faltan botatzen dute ikasturte guztirako egutegia iza-



Aurtengo Sanjuanetan omenduko duten Jose Perez "Amañako Tigrea" garaile izan zen Muñoz gure herriko beste boxeolariaren aurrean.

## >>> Boxeoko bost borrokaldik eta sanda modalitateko beste hiruk osatuko dute gaurko jaialdia

tea: "Aspalditik diogu hori zehaztu beharrean gaudela, kirolariak ere hobeto prestatu daitezten. Egutegi finkoarekin antolatzeke tartea izango lukete, azken momentuko erabakien menpe egon beharrean". Bizkaian boxeoa indar gehiago duela diote eta prestatuago daudela: "Horrela sortzen dira hemen ere boxeatu zuen Kerman Lejarragaren modukoak".

Zaletuei erraztasunak ematea dago data aurreratzearen zergatian: "Sanjuanetan nahiko ekitaldi izaten da bestela ere eta horregatik jarri genuen borrokaldia aurreko asteburuan. Baina azken urteotan horko asteburura eraman dituzte kontzertu handienak ere... Adinean sartuta eta boxeoa betidanik maite dutenekin batera, gurekin entrenatzen duten eta kontaktuzko borrokak gustoko duten gazteak batzen dira Astelenan; bada, aldi berean kontzertuak ipintzen badizkiete, beste zeozer asmatzera derrigortuta gaude". Bestalde, iaz emakumezkoen arteko lau borroka eskaini bazuten, "oraingoan birekin konformatu behar izan dugu".



Sandra Canabal eta Marta Coralek indarrak neurtuko dituzte sanda modalitatean.



Amañako Tigrea eta Ramon Quina. Eskumako irudian, Jose Perez boxeolari zenean.



### 28 urteko harremana

Denbora hori daramate Pepe Perezek eta Ramon Quinak elkarrekin lanean. Bien kasuan, boxeorekiko grina bizitza guztirako zaletasun bihurtuta, halako batean Ramonek Joserengana jo zuen eta ordutik ez da inoi z damutu: "Zintzotasuna da gure arteko harremanaren ardatza, lana egitea eta seriotasunaren bide-tik jardutea", diote biek.

Baten eta bestearen sasoiak desberdinak izan arren, euren gustoko kirolean ezin zuzenagoak izan dira. "Bizioak eta halakoak alde batera laga behar dira", dio Perezek. Derrigorrez zaindu behar, aste bakarrean hiru borrokaldi egitera auzartu zena: "Gainera, hiruretatik bi irabazi nituen eta bestea nulo laga zuten". Super-arin mailan borrokatu zuen Amañako Tigreak, "18 urterekin hasi eta 24 egin arte. Ez-

## >>> Amañako Tigrearen eskutik egin zuen ibilbidea Ramon Quinak boxeoa

kondu eta laga nuen". Guztira 54 borrokaldi egin zituen, 46 irabazi, lau berdindu eta beste lautan galtzaile izateko, beti ere amateur mailan, profesioaletara pasatu barik.

Ramon Quinaren ibilbidea desberdina izan zen, beteranoago zela ekin ziolako boxeolari, aurretik Wu-Shu borroka modalitatean bere mailan Europako eta munduko onena izan ondoren. Amateur mailan 35 borrokaldi egin eta gero (Espainiako azpi-txapeldun geratu zen), neo-profesioaletan beste sei egin zituen (bost irabaziz) eta, behin profesioaletara jauzia eginez, 18 borrokalditan 14 irabazi zituen eta lau galdu.



Andoni Amaña bitan ahalegindu zen Europako txapela janzten, baina bietan galdu zuen.

Eibarko boxeolarien artean, Andoni Amaña izan zen izen gehien hartu zuena, welter eta ertain pisutan Espainiako txapeldun izanik hainbat alditan. Berak ere Asteleanean egin zuen debuta; 64 borrokaldi egin zituen profesioaletan.

## Urbatek 2. maila nazionalean jokatzeko txartela eskuratu du

Urbat Urkotronik-ek zazpigarren saiakeran lortu du maila nazional-eko 2. Mailara igotzea. Lehenengo kanporaketan Vigori bi partidua irabazi eta gero, bigarrenean gauza bera egin du Mallorcarekin eta, hemendik 14 goleko aldearekin joan bazen, uhartean jokaturako partidua ere bereganatu zuen Eibarko taldeak, hori bai, emaitza pixka bat estuagoarekin (13-15). Jokaturako lau partiduetan eibartarrak aurkariak baino askoz gehiago izan dira, 77 gol egin eta bakarrik 33 jasota.

Azken zazpi denboraldiotan Urbatek ibilbide bikaina egin du eta



Eibartarrak erraz nagusitu dira Vigoko eta Mallorcako taldeen aurrean.

Euskal Herriko hiru liga, beste hiru Kopa eta Espainiako 3. Mailako Liga bat irabazi ditu. Eibarko taldea honako jokalariek osatzen dute gaur egun: Izei Sologaiustua, Anartz Mitxelena, Mikel Recio, Alex Sarasua, Kerman Ispizua, Paul Alberdi,

Xabier Egidazu, Koldo Ortega, Ander Treviño, Unax Unceta, Jon Treviño, Asier Ortiz de Zárate, Ander Etxeberría, Gorka Ortiz de Zárate, Xabier Varela, Gorka Arregi, Eneko Zugazaga, Haritz Otero, Haritz Bisquert eta Martin Zamakola.

## Mecalbe Eibar-ek Gipuzkoako Kopa bereganatu du Elgoibarri irabazita

Mecalbe Eibar Eskubaloiko emakumezkoen lehen taldeak ginga jarri dio denboraldiari Gipuzkoako Kopa irabaztearekin batera. Aurreko zapatuan Lezon jokaturako finalean, Andoni Perezen taldea 16-27 erraz nagusitu zitzaion Gaurve Asesores Elgoibarri. Partiduan,

gainera, tarteak aurkitu zuten lehen talde horrekin parte hartu duten jubenilek ere hainbat minutu izan eta euren progresioan aurrera egiteko. Amaia San Martin eta Nahia Benitez izan ziren taldeko goleatzaile nagusienak, zazpi eta sei golekin, hurrenez hurren.



## Foball-zaletuaren Kopako finala bihar

Datorren zapatuan jokaturako da foball-zaletuaren Kopako finala Unben, goizeko 10:30ean hasiko den partidua. Bar Txoko Ligako txapelduna ez da izango final horretan, finalerdiko norgehiagokan 1-4 galdu baitzuen Adahi Eraieder taldearekin. Ander, bi golekin, eta Haritz eta Unai sartutako banarekin izan ziren talde irabazlearen goleatzaileak, Landerrek Txokoren gola sartu zuen bitartean. Beste finalerdia askoz ere parekatuagoa izan zen eta, husna berdindu eta gero, penaltietan Feredu nagusitu zen bost jaurtiketak gol bihurtuz, Garajes Garcia laurekin geratzen zen bitartean. Behin zapatuko partidua amaituta, denboraldiko sariak banatuko dira, Ligakoak tartean.

## Inoiz baino jende gehiago izan zen Eibarko Mendi Itzulia egiten

Aurreko zapatuan 500 lagun inguru bildu zen Eibarko Itzulia egiteko, batzuk ibilaldi osoa egiteko eta beste batzuk erdiarekin konformatu. Marka berri horretan kontuan izan behar da 120 bat beste herri batzuetatik etorritakoak izan zirela. Eguzkiak gorriz jantzitakoena eguna alaitu bazuen ere, ibilaldia gogortzeko ere balio izan zuen. Eskerrak ezarritako bi anoa postuei eta, amaieran, Depor tabernan izandako txorizo eta edariei, indarrak berreskuratzeko balio izan zielako gero eta prestatuago izaten diren parte-hartzaileei.

### Pirinioetara irteera

Hilaren 17-18ko astebururako beste irteera bat prestatu dute Eibarko Deportibokoek Elgoibarko Morkai-



Kamiseta gorritz jantzi ziren gure kaleak zapatuan, goiz-goizean abiatutako martxarekin.

ko mendizalekoekin elkarlanean. Asteburu horretarako plana honakoa da: zapatuan, Cotefablo, Erata, Yesero eta Biescas; eta domekan, Santa Elena, Peña Blanca, Peña Roya eta Panticosa. El Pueyo de Jacako aterpetxean izango dute alo-

jamendua eta irteerak 130 euroko prezioa du (145 bazkide ez direnek). Prezioan autobusa, alojamendua eta bertako gosaria eta afaria sartzen dira. Interesatuak, betiko lez, Deporrera jo dezakete edo deitu (943-201904) izena emateko.

## Gaur jokatu da Igeriketako San Juan Saria

Eibar Igerixan klubak antolatzen duen San Juan Sariak 34. edizioa beteko du gaurkoan, arratsaldeko 20:30etik aurrera egingo den ekitaldian. Bestalde, aurreko asteburuan gure herriko ordezkariak hiru lehiaketetan hartu zuten parte. Donostian jokatuak Gipuzkoako VI. OPEN Sarian Paula Calvo jokatuak infantil mailako lau probatan nagusitu zen. Andoaingo XII. Udako Gipuzkoako Torneoan eibartarrek metal bakoitzeko domina bat irabazi zuten. Azkenik, Oñatiko 35. Txantxiku Sarian Eibar Igerixaneko 11 igerilarik hartu zuten parte eta Xabat Limiak urrezko domina irabazi zuen 50 bizkarrekoan.



## Arima Galdua 17. postuan sailkatu zen Valladolideko Udako Kopan

Asteburuan jokatuak jugger kirol modalitateko Udako Kopan izan zen gure herriko Arima Galduak taldea, eta bi egun ezberdin bizi izan zituzten eibartarrek: zapatuko faseak galdu ondoren, domekako partidu guztiak irabazi zituzten. Valladolideko lehenengo jardunaldia bi fasetan banatu zen eta, horietan aurrera ezin bazuen egin ere, domekako partidu guztietan nagusituta, azkenean, parte hartu zuten 20 talderen artean, 17. postuan sailkatzea lortu zuten Arima Galduak-ekoek. Gero eta gertuago dute Eibarko munduko txapelketa.





Eneko Llanos, Pello Osoro eta Mikel Mujika probaren amaieran.

## Bi eibartar Ironman erdi distantziako Euskadiko triatloi txapelketako podiumean

Aurreko zapatuan Gasteizen jokatutako izen handiko Vihalf Gasteiz triatloian Ironman erdi distantziako Euskadiko txapelketa izan zen jokoa, eta baita PTO mundu mailako rankingerako puntuak ere. Gure herriko ordezkariak maila gorenean jardun zuen eta, podiumeko hiru lagunetatik, bi eibartarrak izan ziren: Pello Osoro irabazlea eta Mikel Mujika hirugarren sailkatua. Peñota Dental Alusigma triatloi taldearekin hartzen dute parte biek eta, horrela, Alex Unzueta berriztarrekin batera, taldekako txapela ere

jantzi zuten. Hirugarren eibartarra Javier Muñoz izan zen, JAZ Eibar Triatloiko kidea, eta bost ordutan proba amaituta, 180. postuan sailkatu zen. Aipatzekoa dugu baita bi eibartarrekin batera Eneko Llanos triatleta profesionalak ere osatu zuela podiuma, bigarren postuan sailkatuz. Eguraldiak asko gogortu zuen triatloia, “oso aldakorra izan zelako, eguzkiarekin hasi eta ekaitzarekin amaitzeko”. Asteburu honetan jokatuko den Zarauzko Triatloian JAZeko hainbat taldekidek hartuko dute parte.

## Bizkaitar batek jantzi du Gipuzkoako hiru-txirlo bola-joko txapela

Azken unera arte oso borrokatua izan bada ere, Lander Odiaga markina-xemeindarrak irabazi du Gipuzkoako 52. hiru-txirlo bola-joko txapelketan. Txapelketaren zatirik handienean Pedro Gomez lidergoan izan bada ere, azkenean San Andres klubekoak hartu dio aurrea, 37 txirlorekin. Asola Berriko Gomezek 35ekin amaitu du eta bi gutxiagorekin geratu da Bittor Astigarraga eibartarra, 33rekin. Emakumezkoetan Aretxabaretako Isana Gorosabel nagusitu zen, beteranoetan Pedro Gomez, benjaminetan Asola Berriko Ander Unamuno eta infantiletan Josu Urkia. Taldeka, azkenik, Asola

Berri A izan zen onena. Guztira 156 bolarik hartu dute parte jokaturako 11 jardunaldietan.

Txapelketari amaiera emateko, zapatuan Lehendakari kanporaketa jokatuko dute Gipuzkoako txapelketako lehen 64 sailkatuek, binaka, garaile bakarra geratu arte. Ekitaldia Azpeitiko Garmendipen izango da, Bolari Egunaren barruan, eta bertan Andres Calero Pozo “Pelos” omenduko dute. Tiraldiak goizeko 11:00etan hasiko dira eta, Kiruri jatetxean bazkaldu eta gero, sari-banaketa egingo da, “Aintzane eta Mirari trikitalariek girotutako jaimartxari ekiteko”.



Asola Berriko Pedro Gomezek azkenean lidergoa galdu eta bigarren amaitu du.

## Xake-eskolarako izen-ematea zabaldu dute Deporren

Klub Deportiboko xake batzordeak 2023-24 ikasturterako xake eskolarako izen-ematea ireki du, 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. 10 ikasleko bi talde osatuko dira eta klaseak barixakuetan eskainiko dira, bi or-

dutegitan: 18:00-19:00 eta 19:00-20:00. Klaseak irailaren 22an hasiko dira Deporreko lokaletan eta euskaraz eskainiko dira. Prezioa 12 eurokoa da hilean, eta liburuak eta sariak prezioan sartzen dira. Izena

emateko [xakea@deporeibar.com](mailto:xakea@deporeibar.com) helbidera idatzi behar da (haurren izena, abizena eta jaiotze data-rekin). Izen-ematea irailaren 15era arte egongo da zabalik, aurretik 20 plazak agortu ez badira.



Naturaz inguratutako mahai-jokoa. PEDROELIZONDO



## Ekainaren 16an izango da aurten hamar urte beteko dituen Poesia-Musika Gaua

Datorren asteko barixakuan, ekainaren 16a, beteko ditu hamar urte Ibarkurutzeko iturriaren inguruan egiten den Poesia eta Musika Gauak eta, hori dela-eta, “aurtengoa benetan berezia” izango dela aurreratu digu ekimen horren sortzaile eta antolatzailea den Maite Lorenzok. Saioa 19:00etan hasiko da eta, aurreko edizioetan bezala, hainbat poetaren errezitaldiak eta zuzeneko musika tartekatzen joango dira, kalean bertan, iturriaren inguruan egingo den saioan. Guztira pare bat ordu iraungo du eta, parte hartuko duten poeten zerrenda oso luzea denez, bakoitzari zerbait laburra irakurtzea eskatu diete, “larregi ez luzatzeko”. Azken orduan aldatetaren bat edo beste egon daiteke, baina, orain arte behintzat, 35 bat poetak baieztatu dute bertan egongo direla. Bestalde, zuzeneko musikarekin arituko direnen artean, Jür (Jurgen Landa eibartarraren bakarkako proiektua), Javi Alzola saxofoi-jotzailea eta honezkero ia urtero parte hartzen duen Alberto Luis Egia piano-jotzailea daude.

## Bigarren poesia-liburua aurkeztuko du Araceli Bonok



Datorren asteko barixakuan aurkeztuko du Araceli Bono Burgosek bere bigarren liburua, 19:00etan, Untzagako jubilatutxean. 2020an kaleratu zuen “Entre mis tacos” izenburukoan bezala, honetan ere berak idatzitako hainbat poesia bildu ditu egileak.



## “El espíritu de los pájaros” liburuaren aurkezpena

Datorren egunean aurkeztuko dute “El espíritu de los pájaros” izenburuko liburua Maria Devesa eta Tania Duran lanaren egileek, 19:00etan Portaleko areto nagusian. Maria Devesa Garcia (La Estrada, Pontevedra, 1961) Donostian bizi da. Erizaintzako laguntzaile modura egiten du lan, adinekoak zaintzen eta, honen aurretik, beste bi lan eman ditu argitara (“Aire fresco en mi jardín” eta “El blog de la Iguana”). Eta Tania Duran Devesa (Donostia, 1998) gizarte-langilea da, Deustuko Unibertsitatean graduatua. Oso gaztetatik izan du irakurri eta idazteko zaletasuna, eta lankidetzan idatzitako poema-liburu hau da argitara eman duen lehen lana.

## Andretxea ezagutzeko bisitak

Isasi kalean dagoen Andretxea berria ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte ekainean. Goizeko ordutegian asteko hiru egunetan izango dira: astelehen eta eguaztenetan, 10:00etatik 12:00etara eta barixakuetan 12:00etatik 13:00era. Eta arratsaldeko ordutegian beste egun hauetan egingo dituzte: ekainaren 20an eta 27an (martitzenak), ekainaren 26an (astelehena), ekainaren 29an (eguna) eta ekainaren 30ean (barixakua), 16:30etik 19:30era egun guztietan.

## Narrastiak ezagutzeko irteera



Bihar Eibarko narrastiak ezagutzeko irteera egingo da, Eibarko Baso Biziak taldeak antolatuta. Untzagatik abiatuko dira, 09:30ean, eta mendi-buelta egingo dute Arrajola Amazabalegi ingurutik. Aranzadi zientzia elkarteko Ander Izagirrek lagunduko die irteeran.



## Neledantzaren omenaldi hunkigarria jaso zuen Nerea Lodosak zapatuan

Benetan sorpresa polita prestatu zioten Nerea Lodosari Neledantzako beste irakasle eta ikasleek zapatuan, dantza klaseak ematen hasi zela 30 urte bete direla-eta. Coliseo antzokian ikasturte amaierako hirugarren eta azken emanaldia eskaintzen zutela aprobetxatuta, lore-sorta ederra eman zioten berarekin batera dantza irakasten ari diren lankideek eta, gainera, bere ikasle izandako gehienen zorion-agurrekin osatutako sei minutuko bideoa ipini zioten. Eibarren dantza garai-kidea irakasten aitzindaria den irakasleak hunkituta eta esker onez jaso zuen omenaldia.



## Amañako bertso-afarirako txartelak Amestin eta Guridin

Amañako Jaiek 43. edizioa beteko dute aurten eta, egitarauaren barruan, bertso-merienda egingo da uztailearen 14an. Ekitaldiak, gainera, kokagune berria izango du: Sosola baserrian egingo da, 19:00etatik aurrera. Tiketak Amañako Amesti eta Untzagako Guridi tabernetan ipiniko dira salgai, 25 eurotan. Plaza kopurua mugatua izango da (50 lagun). Hori dela-eta, ez da komeni azken momenturako lagatzea.



## Marmitako lehiaketarako izen-ematea zabalik dago

Ekainaren 18ra arte eman daiteke izena Udalak antolatutako Sanjuanetako XXVIII. marmitako lehiaketarako. Ekainaren 25ean, San Juan Txiki egunean egingo da, 11:30ean Untzagan. Izen-ematea Internet bidez, Udalaren web orrian (eibar.eus) dagoen formularioa beteta egin daiteke eta informazio guztia ere bertan kontsultatu daiteke.

## Breaking Eibar txapelketa jokatuko da bihar Txaltxa Zelaian



Sanjuanen atarian egingo da Eibarko VIII. Break Dance eta New Style Txapelketa. Bihar 17:00etan hasiko dira kanporaketak, Txaltxa Zelaian (euria egingo balu Errebalen burutuko da ekitaldia) eta izena emateko [breaking.eibar@gmail.com](mailto:breaking.eibar@gmail.com)

helbidera mezua bidali behar da. 700 eta 400 euroko sariak emango dizkiete lehen eta bigarren sailkatzen direnei.

## Gaur 19:00etan salduko dituzte herri-bazkarirako tiketak

Jaixak Herrixak Herrixandako kolektiboak aste honetan bertan eman du eza-gutzeraz aurtengo jaietarako prestatu duten egitaraua eta herri-bazkarirako tiketak saltzen ere hasi dira. Erosi nahi duenak gaur izango du aukera, Txaltxa Zelaian (Txosnagunean), 19:00etan. Tiket bakoitzak 15 euro balio du (ahal dela, dirua justu eramateko eskatu dute).





### III. Txistu Eguna ospatuko da bihar arratsaldean

Usartza Txistulari Taldeak Eibarko III. Txistu Eguna antolatuko du, Udalaren laguntzarekin. Bihar izango da topaketa, 17:00etatik 21:30era. Usartza Txistulari Taldeak esan digutenez, “San Juan jaiak gertu dauzkagu eta, inguruko herrietako txistulariekin batera, auzo ezberdinetako kaleak txistu doinuekin betetzeko asmoa daukagu”. Txistulariak Ermua, Elgoibar, Deba, Ondarru, Durango, Zornotza eta Bilbotik etorriko dira. Egitaraua 17:00etan hasiko da, txistulari guztiei Untzagan harrera eginda. Jarraian, talde bakoitza auzo batera abiatuko da, kalejirak egiteko (Amaña, Ipurua, Legarre, Urki, Azitain, Urkizu, Jardineña...). Eta, 19:00etan, denak Untzagan elkartuko dira, erdialdeko kaleetan kalejiran ibiltzeko, bi tronpeta eta Eibarko Musika Eskolako bi soinu-jolerekin, 21:30 arte.



### Gaur 19:30ean hasiko da Dantzari Eguna Untzagan

Gaur arratsaldean egingo da Dantzari Eguna, 19:30ean Untzagan. Urteroko martxan, Klub Deportiboko Kezka Dantza Taldeak antolatutako emanaldian. Kezkaren dantza eskolan euskal dantzak ikasten dituzten talde ezberdinak arituko dira, ikasturtean ikasi dutena jendaurrean erakusten.



### Musika Bandaren kalejira eta kontzertua domekan

Eguraldia lagun, Eibarko Musika Bandak kalejira egingo du domekan, 12:00etan, Estaziño kaletik Toribio Etxebarriaraino. Gero, 12:45ean, kontzertua emango du bertan (euria egingo balu, Errebal Plazan). Andoni Vazquez zuzendariaren berbetan, “betiko errepertorioa” eskainiko dute, hau da, zarzuela, pasodoblea, euskal musika... Azaldutakoaren arabera, “agian, bereziena, Agustin Zuluagaren jota bat, ‘La Torrericca’ izenekoa joko dugula izango da. Zuluagak, besteak beste, ‘Cielito’ habanera konposatu zuen eta Eibarko Bandako zuzendaria ere izan zen, orain dela 100 urte inguru. Lehengo errepertorioa berreskuratzeko lanean ari gara, poliki-poliki horrelako piezak ateratzen joateko”.



### Kontzertu bikoitza antolatu dute biharko Zai Zoin

Zapatuan, 19:00etatik aurrera, bi kontzertu eskainiko dituzte Zai Zoi tabernan, bata bestearen atzetik. Old Time Spooks taldea (Gasteiz) eta Goiatz Dutto bakarlarria (Laudio) arituko dira, amerikar kutsuko doinuak, bluegrass estiloko musika zuzenean eskaintzen, musutruk.



# Ekainak 9/15

## BARIXAKUA9

### OMENALDIA

**19:00** Urbat waterpolo taldeari harrera. Untzaga.

### DANTZA

**19:30** Dantzari Eguna. Untzaga.



### DANTZA

**20:00** Biraka Dantzaren emanaldia. 3 euro. Coliseo.

### IGERIKETA

**20:30** XXXIV. San Juan Igeriketa Saria. Ipuruia kiroldegia.

### BOXEOA

**22:30** Boxeo Gaua. 12/15 euro. Astelena frontoia.

## ZAPATUA 10

### IRTEERA

**09:30** "Narrastiak ezagutzen" mendi buelta gidatua (Arrajola Amazabalegi inguruan), Aranzadiko Ander Izagirrekin. Untzagan hasita.

### KALEAN EHUNTZEKO EGUNA

**10:00/13:00** "Kaleak gureak dira" (#puntuetakitto). Untzaga.

### DANTZA

**16:00/21:00** Eibarko VIII. Break Dance eta New Style Txapelketa. Txaltxa Zelai.

## TXISTU EGUNA

**17:00** Eibarko III. Txistu Eguna. Kalejirak herriko auzoetatik.



### MUSIKA

**19:00** Kontzertu bikoitza: Goiatz Dutto eta Old Time Spooks. Zai Zoi taberna.

### MUSIKA

**22:00** Eibar Kantuan jaialdia. 5 euro. Astelena frontoia.



## DOMEKA 11

### GALDARAMIÑORA IGOERA

**09:30** XIII. Galdaramiñora Igoera eta Atzegiren martxa. Urki.

### CORPUS EGUNA

**12:00** Meza. Ondoren, prozesioa (Urkizuraino) eta bedeinkapena. Karmengo Amaren eliza.

## MUSIKA

**12:30** Eibarko Cielito Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria (euria eginez gero, Errebalen).

## EGUAZTENA 14

### BERBETAN JAIALDIA

**17:30** Berbetan jaialdia: "Gora bihotzak" musika eta dantza ikuskizuna. Errebal Plaza.



### DANBORRADA

**19:00** Umeen entsegua.  
**20:00** Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa).

### DANTZA

**20:00** KOA Dantzaren ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

## EGUENA 15

### LIBURU AURKEZPENA

**19:00** "El espíritu de los pájaros", Maria Vespa eta Tania Duranen liburu aurkezpena. Portalea (areto nagusia).

### GIMNASIA ERRITMIKOA

**19:00** Ipuruia Gimnasia Erritmikoa taldearen erakustaldia. Untzaga.

## ERAKUSKETAK

**Ekainaren 20ra arte**  
**ZERAMIKA ETA DIBUJO UDAL ESKOLETAKO**  
**ikasleen kurtso amaierako erakusketa**  
(Portalea)

**Irailaren 1era arte**  
**"TAILERRETIK BULEGORA. EIBARKO PRODUKTUAK".**  
(Armagintzaren Museoa)

## Eskualdeko Agenda

### ELGOIBAR

**9an (BARIXAKUA)**  
**DANTZA JAIALDIA**  
**19:00 / Kalegoen plaza**  
"Birikaos", Biraka dantza eskolarekin  
**KONTZERTUA**  
**21:30 / Maalako parkea**  
"Queen gaua", Udal Musika Bandarekin

### SORALUZE

**10ean (ZAPATUA)**  
**DANTZA**  
**11:00/20:00 / Ezozu auzoa**  
Ezoziko Erromeria

### ERMUA

**10ean (ZAPATUA)**  
**TXINDURRI EGUNA**  
**12:30 / Orbe Kardinala**  
Dantza-poteoa, dantza erakustaldia, erromeria eta larrain-dantza  
**11n (DOMEKA)**  
**TXINDURRI EGUNA**  
**11:00 / Orbe Kardinala**  
Dantza erakustaldia, herri-bazkaria eta erromeria

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **10ean:** 19:45, 22:30
- **11n:** 20:00
- **12an:** 19:30

**“Maestro(s)”**  
DRAMATIKOA



2022/Frantzia/90'  
Zuzendaria: Bruno Chiche  
Aktoreak: Yvan Attal,  
Pierre Arditi, Miou-Miou  
**Familia / Musika inguruan**

## 2 ARETOA

- **10ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **11n:** 17:00, 20:00
- **12an:** 19:30

**“Como Dios manda”**  
KOMEDIAZKOA



2023/Espainia/90'  
Zuzendaria: Paz Jimenez  
Aktoreak: Leo Harlem, Maria  
Morales, Daniel Perez Prada  
**Umorea / Bizitza aldaketa**

## ANTZOKIA

- **10ean:** 17:00, 19:45, 20:00
- **11n:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **12an:** 19:30

**“Transformers”**  
AKZIOZKOA



2023/AEB / 127'  
Zuzendaria: Steven Caple Jr.  
Aktoreak: Anthony Ramos,  
Dominique Fishback, D. Di Rosa  
**Abenturak / Zientzia-Fikzioa**

## ANTZOKIA

- **10ean:** 16:30
- **11n:** 17:00

**“Spider-Man”**  
ANIMAZIOZKOA



2023/AEB / 140'  
Zuzendaria: Joaquim Dos Santos  
**Abenturak / Komikia / Sekuela / Superheroiak**

• **tartak**  
• **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**FUNEUSKADI**  
Grupua: Funeraria

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

TANATORIO EIBAR  
TANATORIO ERMOUSKO  
ERMOUSKO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermusko bulegoa: Marquis de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**kili & klik**  
argazkilaritza fotografia

646114443 · kili\_klik  
kili@maksortzen@gmail.com · Indalecio Ojanguren 1



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behariko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MAIALEN**, hillaren 7xan 7 urte egin zenduazena-eta. Aitxitxa, amama, Markel eta Aitanaren artez.



Zorionak, **UXUE!!!** Domekan 5 urte beteko ditugu gure printzesak. Patxo erraldoi bat etxeko guztion partez. Maite zaittugu!!!



Zorionak, **MALEN!!!** Gaur 5 urte betetzen dozuz-eta! Jarraitu zaren bezalakua izaten! Askok maite zaittugu, saltsera!!!



Zorionak, **ENARA** Maiztegi, 7 urte bete dozuzelako. Egun politta pasatu. Musu haundi bat zuretzat! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **INHAR**, bixar urtetxua beteko dozu-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **IBAI**, hillaren 6xan 10 urte egin zenduazelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez, txapeldun!



Zorionak, **NAHIA!** Hillaren 2xan 5 urte bete zenduazena-eta. Musu erraldoia famelixa guztiaren eta, bereziki, **MALEN**en partez. Askok maite zaittugu!



Zorionak, guapuok!!! Atzo **JOKINEK** 20 urte bete zittualako eta **MIRENEK** domekan 25 egingo dittualako. Jarraitu holan. Musu bat guztion partez.



Zorionak, **IZARO** (astelehengan 12 urte bete zenduazena) eta **AIORA** (gaur 4 egiten dozuz)!! Musu pillua famelixaren eta, batez be, Landerren partez!!



Zorionak, **IRUNE** eta **ALEX**, eta eskerrik asko famelixaren partez, maiatzaren 28xan egin deskuzuen erregalarik polittarenagaittik: Luka zuen semetxua.



Ongi etorri famelixara, **LUKA!!!**

**Izadi**  
LORADENDA  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK ERRAMUAK  
Inkarguak etxera

**egorbix**  
Urtzi Antxustegi (688 649 837)  
09:30/19:00 EROSKI-n

LEHEN ORAIN

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Legarre dorrean. 626719802.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. 943031363.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna (goi mailako teknikaria HHn eta EGArekin) eskaintzen da umeak zaintzeko. Ekaienean eta uztailean. 660522271.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Esperientzia. 626407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 642577823.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 622023451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 604986450.
- Neska eibartarra eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia eta erreferentziak. 699473761.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko (etxeak, pegorak, bulegoak) eta nagusiak zaindu edo laguntzeko. 620757528. Arrate.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez, ospitalean eta asteburuetan ere. 613073936.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 663937822.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak zaintzeko etabar. 688805742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 631319476.

### 4.2. Langile bila

- Martxan dagoen taberna eskuragarri. Baldintza onak. 645109141
- Aho eta hortzetako higienista behar da. hortzklinika.06@gmail.com
- Administratibo komertziala behar da arratsaldez lan egiteko. Bidali curriculum-a: akomertziala@gmail.com
- Dendaria behar da Eibarko moda-denda batean. Jornada erdiz (goizez). Bidali curriculum-a: eibardenda@yahoo.com
- Pertsona behar da idazkarilanak, errekaduak etabar egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com
- Bertiz kafetegi eta okindegi baterako titularra behar dugu. Beharrezkoa: autonomoetan alta ematea eta euskeraz egitea. Lokal guztiz egokituaz, eguneko ordutegia eta bermatutako onurak. 622370200. Yarighouse@gmail.com

- Fisioterapeuta (edo osasun arlokoa) behar da Eibarko klinika baterako. Curriculumak bidali: urreibar@hotmail.com
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Pertsona behar da DBH3ko Matematika eta Fisikako klaseak emateko irailetik aurrera gure etxean. 627307168. Naiara.

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Ohe-artikulatu geriatrikoa salgai. Oso egoera onean. 667938638.

[www.larragestinmobiliaria.net](http://www.larragestinmobiliaria.net)

**Sansaburu, 9 85.000 €**  
 60 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea.

**Saratsuegi, 6 170.000 €**  
 63 m<sup>2</sup>. Bizitzera sartzeko. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea.

**Zuloagarren, 9 310.000 €**  
 118 m<sup>2</sup>. Berritzeko. 3 logela, 2 komun, egongela ikusgarria, 2 terraza.

**Zuloagarren, 9 339.000 €**  
 100 m<sup>2</sup>. Guztiz berriztuta. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela.

**J. Etxebarria, 9 299.000 €**  
 85 m<sup>2</sup>. Berriztuta. 3 terraza, 3 logela, komuna (bigarrena egiteko aukera), sukaldea, egongela.

**J. A. Iturriotz 170.000 €**  
 56 m<sup>2</sup>. Guztiz berriztuta. Bista irekiak. Balkoia, 2 logela, komuna.

**Bidebarrieta, 30 310.000 €**  
 83 m<sup>2</sup>. Ikusgarria. Bizitzera sartzeko. 3 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela.

**Bidebarrieta, 28 280.000 €**  
 114 m<sup>2</sup>. Etxebizitza handia. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela.

**Arrageta 410.000 €**  
 77 m<sup>2</sup>. Atikoa. Bikaina. Guztiz kanpora begira. 44 m<sup>2</sup>ko terraza, 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea.

**Mekala 395.000 €**  
 75 m<sup>2</sup>. Promozio berria. 1. solairua. 16 m<sup>2</sup>ko terraza, 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea.

**T. Etxebarria, 9 345.000 €**  
 95 m<sup>2</sup>. Berritzeko. Erdi-erdian. Guztiz kanpora begira. 2 balkoi, 3 logela, 2 komun, egongela.

**Barrena, 8 120.000 €**  
 71 m<sup>2</sup>. Bizitzera sartzeko. Egoera bikainean. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea.

**Romualdo Galdos 110.000 €**  
 71 m<sup>2</sup>. Ipurua ingurunean. Berritzeko. Balkoia, 3 logela, komuna, egongela, sukaldea.

**San Juan, 11 298.000 €**  
 170 m<sup>2</sup>. Etxebizitza handia erdigunean. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela.

**Fermin Calbeton 265.000 €**  
 114 m<sup>2</sup>. Pisu handia erdigunean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela.

**Ardantza 117.000 €**  
 56 m<sup>2</sup>. VPD etxebizitza. Baldintza ezinhobeak. Igogailua 0 kotan. 2 logela, komuna, sukaldea, egongela.

# 10 Kia Egunak bueltan.

Ekainaren 8tik 19ra.



Movement that inspires

Ezagutu teknologiak noraino eraman zaitzakeen ekainaren 8tik 19ra 10 Kia Egunak bueltan direla aprobetxatuz.

**KIA**  
NAIA CAR

📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎ 943 70 70 33 📱

[www.kia.com](http://www.kia.com)

LTP CO2 isuri konbinatuak (g/km): 18-162. WLTP kontsumo konbinatu haztatua (l/100 km): 0,8-7,4. Kontsultatu promozioaren baldintzak eta beteakizunak [www.kia.com](http://www.kia.com) webgunean. Eskaintza honek Penintsulako, Balearretako, Ceutako, Melitako eta Andorako Kia kontzesionarioen sarean balio du. \* Kontsultatu Kia berme-eskuibunak.

